# OROITZAPEN LIBURUA

~ ~ ~

# LIBRO CONMEMORATIVO

Donostia - San Sebastián

2012

MARIA REINA ESKOLA

50 urte

# MARIA REINA ESKOLA

# 50 años

© Testu eta irudiena / De los textos e ilustraciones: 2012, Maria Reina Eskola

Lehen argitaraldia / Primera edición: 2012ko abendua / diciembre de 2012

Diseinua, maketazioa eta edizioa / Diseño, maquetación y edición: ALBERDANIA

Inprimatzailea / Imprime: ITXAROPENA, Zarautz.

ISBN: 978-84-9868-387-5

Legezko Gordailua / Depósito Legal: SS 1867/12

# ÍNDICE


1. Saludo del P. Enrique Vivó de Undabarrena, fundador y primer director 5

2. Saludo de Sebastián Tenés Iturriza, primer presidente de la Asociación 6

3. Los antecedentes 7

4. Primera época, desde el 5 de octubre de 1962 hasta el 8 de abril de 1973 (de Av. Ametzagaña, 19 a Av. Ametzagaña, 58) 9

5. Segunda época, desde el 8 de abril de 1973 hasta el curso 1994/95 (nuevo edificio) 18

6. Tercera época, desde el curso 1994/95 hasta el 5 de octubre de 2012 29

7. Eskolako zuzendariak eta Elkartaren presidenteak 34

8. Saludo de Javier Rodríguez Conde, presidente actual de la Asociación 35

9. Saludo de Ainhoa Domínguez Landa, directora actual 36

Imágenes del curso 2012/13 37

Imágenes de fiestas y celebraciones 46


# AURKIBIDEA


1. Fundatzaile eta lehen zuzendari Aita Enrique Vivó Undabarrenaren agurra 5

2. Elkartearen lehen presidente Sebastián Tenés Iturrizaren agurra 6

3. Aurrekariak 7

4. Lehen aroa, 1962ko urriaren 5etik 1973ko apirilaren 8a arte (Ametzagaina 19tik Ametzagaina 58ra) 9

5. Bigarren aroa, 1973ko apirilaren 8tik 1973ko 1994/95 ikasturtea arte (eraikin berria) 18

6. Hirugarren aroa, 1994/95 ikasturtetik 2012ko urriaren 5a arte 29

7. Directores de la Escuela y presidentes de la Asociación 34

8. Elkartearen gaur egungo presidente Javier Rodríguez Conderen agurra 35

9. Gaur egungo zuzendari Ainhoa Domínguez Landaren agurra 36

2012/13 ikasturteko irudiak 37

Jai eta ospakizunetako irudiak 46


MARIA REINA ESKOLA

50 urte

# Maria Reina Eskola

# 50 años



## 1
## Saludo
## del P. Enrique Vivó de Undabarrena,
## fundador y primer director



## 1
## Fundatzaile eta lehen zuzendari
## Aita Enrique Vivó Undabarrenaren
## agurra



Maria Reina Eskola

50 urte

## 2

## Saludo de Sebastián Tenés Iturriza, primer presidente de la Asociación

La parroquia de María Reina, o mejor su párroco Enrique Vivó, se dio cuenta de que eras muchas las obras sociales que la misma tenía: era el Colegio, la colonia de Arano, el Club de Jóvenes Xavier, el de no tan jóvenes Aguiluchos, el Kostkas Club de Fútbol, y creyó conveniente dejarlo en manos de un grupo de feligreses que se hiciera cargo de todas ellas.

Así surgió la Asociación Católica de Padres de Familia de María Reina.

Nos dimos cuenta de que lo más perentorio era que el colegio fuera un colegio de verdad, y, acogiéndonos a un préstamo que hacía el Ministerio de Educación de 4.200.000 ptas., nos lanzamos a su construcción. Aquello no llegaba ni para la mitad, pero gracias a que el arquitecto Sr. Llanos no cobró, a la paciencia del constructor Sr. Iturrarte para al fin cobrar y a las trampas que tuvimos que hacer y hasta ofrecer nuestras viviendas como garantía, que no nos las aceptaron porque todas ellas estaban hipotecadas, al fin lo vimos empezar a andar, gracias a Felipe García, a las cristetas de Ametzagaña, 19 que tanto nos animaron, y todos nuestros desvelos los dimos por buenos.

## 2

## Elkartearen lehen presidente Sebastián Tenés Iturrizaren agurra

Maria Reina parrokia bera eta bere parrokoa, Enrique Vivó, berehala konturatu ziren gizarte ekintza gehiegi zeudela beren esku. Eskola bera zegoen, Aranoko udalekua, Xavier gazteen kluba, “Aguiluchos” hain gazte ez zirenen kluba, Kostkas futbol taldea e.a., eta horrela pentsatu zuen ona izango zela gauza horiek denak hainbat eliztarren esku uztea.

Horrela sortu zen Maria Reina Guraso Elkarte Katolikoa.

Konturatu ginen aurreneko gauza zela eskola bera benetako eskola bihurtzea, eta Hezkuntza Ministerioak ematen zuen 4.200.000 pezetako diru mailegu bati atxikirik, eskola eraikitzera jo genuen. Diru kopuru hark ez zuen ematen erdia ere egiteko, baina Llanos jaun arkitektoak kobratu ez zuenez, Iturrarte etxegileak pazientzia galanta eduki zuenez kobratzeko, eta, esan beharra dago, guk geuk ere tranpatxo batzuk egin genituenez eta geure etxebizitzak berak berme jarrita (ez zizkiguten bermetzat onartu baina, denak hipotekatuta zeudelako), azkenean obrak abian jartzen zirela ikusi genuen, Felipe Garcíari esker eta Ametzagaina 19ko moja Cristeten adoreari esker, eta azkenean gure kezka eta lo galtze guztiak ontzat jo genituen.

## 3
## LOS ANTECEDENTES

La Parroquia de María Reina de la capital donostiarra fue decretada en abril de 1959. El domingo 18 de enero de ese mismo año había ya iniciado su singladura, abriéndose al culto y a las obras sociales en un local provisional sito en los bajos del número 12 de la calle Río Deva, en el barrio de Egia.

El Patronato de San Francisco Javier, en funcionamiento desde 1954 y dedicado a la formación religiosa y al ocio infantil y juvenil, fue el antecedente de Aguiluchos y del Club Xavier. Aguiluchos, que estuvo presente desde el primer año de funcionamiento de la Parroquia, como testimonia la felicitación en la que aparece el primer listado de niños del barrio socios del club, aglutina un número considerable de chavales que participan en las más variadas actividades de esparcimiento y formación.

El Club Xavier nace con un espíritu similar, pero dirigido a un colectivo de corte más juvenil y de ambos sexos. En 1960 cuenta con un local independiente en los bajos de la calle Río Deva número 14. Su equipo de fútbol, germen del futuro Kostkas, disfruta en sus primeros haberes de un balón reglamentario y dos juegos de camisetas de la Real Sociedad y del Atlhetic de Bilbao.

## 3
## AURREKARIAK

I Maria Reina parrokia, Donostian, 1959ko apirilean sortu zuten. Urte hartako urtarrilaren 18an hasia zuen bere ibilbidea lokal behin-behineko batean, bai gurtzarako bai gizarte ekintzetarako ere. Lokal hori Egia auzoan zegoen, Deba Ibaia kalean, 12. zenbakiko sotoetan.

2 1954tik aurrera martxan zegoen San Francisco Javier patronatua. Erlijio hezkuntza eta haurren aisia zuen helburu. Hori izan zen Aguiluchoen eta Xavier Klubaren aurrekaria. Aguiluchoetan, haur eta gazte pila bat biltzen zen nahiz jolaserako eta aisiarako nahiz hezkuntzarako. Parrokiaren lehen urtetik aurrera zeuden Aguiluchoak hor, eta horren lekuko da zorion txartel bat non auzoko bazkide guztien izenak ageri baitira.

3 Antzeko espiritu batekin sortu zen Xavier Kluba, baina haurren ordez gazte jendea zuen helburu, neska eta mutil. 1960an bazuten lokal bat Deba Ibaia kalean, 14. zenbakiko sotoetan. Bertako futbol taldeak, geroko Kostkasen ernamuin, bere altxorren artean zeukan arauzko baloi bat eta bi elastiko joko, bata Errealarena eta bestea Athleticena.


**Seis parroquias donostiarras inician su andadura**

1961 Los párrocos tomaban posesión de sus cargos, aunque los locales fuesen en varios casos provisionales





1970/71. Eskola kirola. Gipuzkoako txapeldunak.
1970/71. Deporte escolar. Campeones de Gipuzkoa.



1997/98. Haur Hezkuntza, 0 eta 1 urte.
1997/98. Educación Infantil, 0 y 1 años.



1997/98. Haur Hezkuntza, 2 urte.
1997/98. Educación Infantil, 2 años.



1997/98. Haur Hezkuntza, 3 urte.
1997/98. Educación Infantil, 3 años.

4

Ante la falta de un centro de enseñanza masculina en el barrio, en el año 1961 el Ayuntamiento habilita un reducido bajo al final de la calle Río Deva para albergar a 60 párvulos.

Auzoan ez zegoen mutilentzat ikastetxerik, eta arazo horren aurrean, 1961ean, udaletxeak soto txiki bat egokitu zuen Deba Ibaia kalearen bukaeran 60 eskolaurreko ume hartzeko.

5

Tras varios proyectos infructuosos de una sociedad conjunta de enseñanza entre el Colegio San José de Primera Enseñanza para niños sito en Ametzagaña, 25 y el de niñas y párvulos de la Academia Velasco en Río Deva, se dará vía libre para la creación del Colegio Parroquial María Reina.

Alde batetik zegoen mutilentzako San Jose lehen hezkuntzako ikastetxea, Ametzagaina 25ean, eta bestetik, neskentzako eta eskolaurreko umeentzako Velasco Akademia Deba Ibaia kalean. Hainbat saio egin ziren bi zentroez elkarte bakarra egiteko, baina ez zen ezer lortu. Horregatik bidea zabaldu zen Maria Reina Parrokiako Eskola sortzeko.

6

La creación del Colegio Parroquial cuenta con la opinión favorable del Excmo. Sr. Obispo D. Jaime Font y Andreu y la generosidad del Sr. Dorronsoro, quien, propietario del bajo sito en el 21 de la calle Ametzagaña, lo cede, y paga, en su totalidad, las obras de adaptación y la adquisición de 20 pupitres.

Parrokiako Eskola sortzeko aldeko iritzia erakutsi zuen Jaime Font y Andreu orduko Gotzain Txit Gorenak, eta Dorronsoro jaunaren eskuzabaltasunari esker egin ahal izan zen. Ametzagaina kaleko 21eko sotoaren jabea baitzen Dorronsoro, eta parrokiaren esku utzi zuen. Berak ordaindu zituen osorik egokitze lanak eta 20 ikasmahai erosi zituen.

## 4
## PRIMERA ÉPOCA
## DESDE EL 5 DE OCTUBRE DE 1962
## HASTA EL 8 DE ABRIL DE 1973
## (DE AV. AMETZAGAÑA, 19 A AV. AMETZAGAÑA, 58)

El Colegio se abre al curso el 5 de octubre del año 1962 con 28 alumnos repartidos en dos clases: 16 se incorporaron a Ingreso y 12 a Primero de Bachiller. Con anterioridad, en concreto el 28 de septiembre, se había hecho pública la apertura del Colegio y la convocatoria para el inicio del curso por medio de la circular cuyo texto se reproduce a continuación.

## 4
## LEHEN AROA
## 1962KO URRIAREN 5ETIK
## 1973KO APIRILAREN 8A ARTE
## (AMETZAGAINA 19TIK AMETZAGAINA 58RA)

7

7. Lehen ikasturtea 1962ko urriaren 5ean zabaldu zen. 28 ikasle zituen eta bi ikasgela: 16 ikasle “Ingreso”n hasi ziren eta 12 batxilergoko lehen kurtsoan. Lehenago, irailaren 28an, eskolaren irekitzea eman zen jakitera, eta ikasturtea hasteko deia gutun baten bidez egin zen. Hona hemen gutun hori.

**APERTURA Y CONVOCATORIA DEL COLEGIO MARÍA REINA**

**Colegio de 2ª Enseñanza María Reina. Avda. de Ametzagaña, 21**

SAN SEBASTIAN 28 Septiembre 1962

Muy Señor mío:

Me dirijo a usted para darle detalles sobre el Colegio y su apertura.

1º Dios mediante el Colegio comenzará sus clases el 5 de Octubre.

2º El horario del Colegio será, por la mañana de 9,30 a 1,30; y por la tarde de 3,30 a 8,30. Nuestra intención es retener al niño el mayor tiempo posible evitándole el callejeo, tan perjudicial para su educación y formación.

3º Para la inscripción del alumno en el Colegio se abonarán 25 pesetas.

4º Respecto a la matriculación oficial para los exámenes de fin de curso, se comunicará lo que proceda, oportunamente.

5º La mensualidad para todos los alumnos será de 150 pesetas.

6º Mensualmente se remitirá a los padres la calificación obtenida en las disciplinas correspondientes, comportamiento, puntualidad, asistencia, etc.

7º Por razones de uniformidad se facilitarán por el Colegio a los alumnos, los elementos indispensables para sus estudios o trabajos, como son libros de texto oficial, cuadernos etc. a los mismos precios que en el comercio. La Dirección del Colegio recibirá gustosa cuantas sugerencias o indicaciones estimen pertinentes, con referencia a asuntos o cuestiones que tengan relación con los estudios.



1997/98. Haur Hezkuntza, 4 urte.
1997/98. Educación Infantil, 4 años.



1997/98. Haur Hezkuntza, 5 urte.
1997/98. Educación Infantil, 5 años.



1998/99. Haur Hezkuntza, 0 eta 1 urte.
1998/99. Educación Infantil, 0 y 1 años.

El primer Claustro del Colegio María Reina estuvo compuesto en su totalidad, a excepción de un único docente, por sacerdotes. Todos ellos ejercieron su magisterio de forma totalmente altruista y gratuita. Esta fue la composición del Claustro.

P. Enrique Vivó de Undabarrena, director.
P. Baltasar Iglesias.
P. José María Garmendia.
P. José Antonio García
P. José Enrique Mocoroa.
P. Ignacio Urdampilleta.
D. Francisco de la Peña.

8 Maria Reina eskolako lehen klaustroa, irakasle bakar bat kenduta, apaizez osatua egon zen oso-osorik. Den-denek lan egin zuten modu altruista batean eta dohainik. Horrela zegoen osatuta irakasle batzarra:

A. Enrique Vivó de Undabarrena, zuzendaria.
A. Baltasar Iglesias.
A. Jose Maria Garmendia.
A. Jose Antonio García
A. Jose Enrique Mocoroa.
A. Ignazio Urdampilleta.
Francisco de la Peña jn.



1998/99. Haur Hezkuntza, 3 urte.
1998/99. Educación Infantil, 3 años.

Tras la puesta en marcha del Colegio en octubre de 1962, en junio de 1963 se dirige al Ministerio de Educación una solicitud documentada con una memoria, para la concesión de una sección filial del Instituto Peñaflorida de Enseñanza Media en la Parroquia María Reina. La concesión queda desechada por este organismo, que argumenta que los locales están enclavados en una casa de vecindad.

9 1962ko urrian ikastetxea martxan jarri ondoren, 1963ko ekainean, eskaera bat egin zitzaion Hezkuntza Ministerioari, memoria txosten eta guzti, Maria Reina parrokian sortu nahi zelako Hezkuntza Ertainetako Peñaflorida Institutuaren eskumendeko adar bat. Eskaera atzera bota zuten ministerioan, eta azaltzen zuten arrazoia zen etxebizitzetarako lokal batean kokatuta zegoela.

El Colegio sigue manteniendo una estructura de filial al uso, aumentando progresivamente sus unidades en función de las necesidades internas y del barrio.

10 Ikastetxeak ohiko eskumendeko egiturari atxikita jarraitu zuen, eta pixkana-pixkana handituz joan zen auzoaren eta zentroaren beraren beharren arabera.

11

La Srta. Blanca Montero será la primera profesora del Colegio. Fue la responsable de los cursos de Preparatorio e Ingreso. Recogemos aquí un programa de Navidad ofrecido por sus alumnos en diciembre de 1964.

Blanca Montero andereñoa izan zen ikastetxeko lehen emakume irakaslea. Bere gain egon ziren "Preparatorio" eta "Ingreso" kurtsoak (orduko terminologiaz esanda). Hemen jasotzen dugu Gabonetako ospakizun baten egitaraua, Blanca andereñoaren ikasleek 1964ko abenduan antolatua.

*El Director y los Profesores del Colegio de María Reina les felicitan las Pascuas y tienen el gusto de invitarles a la Velada Navideña, que tendrá lugar el próximo lunes, día 20, a las 7 de la tarde, en el Salón de Actos Parroquial.*

**PROGRAMA**

***El Reino de la Ortografía,***
pieza teatral infantil, en dos actos.

ACTORES
F. J. Sabadie - A. Sansinanea - P. Pazos - B. Sansinanea
J. l. Añorga - J. C. Galarza
J. M. Lizarralde - A. M. Jiménez - S. Antón
J. M. Gorostidi - J. A. Sarasola - C. Alvarez

MAGIA Y MALABARISMO, por J. l. Añorga e l. Zumeta
CANCIÓN POPULAR FRANCESA, por J. M. Galparsoro.
DIÁLOGOS, por J. l. Añorga y J. L. Martins.
POESÍAS Y VILLANCICOS, por un armonioso conjunto de "peques".

12

El 25 de mayo de 1965 se firma un contrato para la adquisición de los solares del complejo social-religioso de María Reina, La totalidad de dicho complejo sobrepasa los 10.000 metros cuadrados.

1965eko maiatzaren 25ean, kontratu bat sinatu zen Maria Reina gizarte eta erlijio gunea izango zenaren orubeak eskuratzeko. Gune osoa 10 mila metro koadro baino handiagoa zen.



1998/99. Haur Hezkuntza, 4 urte.
1998/99. Educación Infantil, 4 años.



1998/99. Lehen Hezkuntzako 6. maila.
1998/99. 6º de Primaria.



2005/06. Zuaza aterpetxean.
2005/06. En el albergue de Zuaza.



2005/06. Zuaza aterpetxean.
2005/06. En el albergue de Zuaza.



1968. Aranoko udalekuan.
1968. En las colonias de Arano.

13

El número de alumnos va aumentando progresivamente a lo largo de los años 60, ampliándose los niveles educativos del Primero de Bachillerato y el Ingreso del primer curso, con un total de 28 alumnos, a los 168 en el curso 65/66, repartidos en las clases de Preparatorio, Ingreso (desdoblado) y 1º, 2º y 3º de Bachillerato. En el curso 66/67, el Colegio va a dedicar una de sus partes a la Enseñanza Primaria. Se solicita y presenta la documentación para la creación de un grupo de párvulos y de una sección unitaria dependiente del Patronato Diocesano. Con fecha 5 de agosto de 1966, se publica en el Boletín Oficial del Ministerio de Educación la autorización de la implantación de estas dos secciones. Este curso el número de alumnos se cifra en 230.

Pixkana-pixkana gero eta ikasle gehiago sartzen da eskolan 60ko urteetan zehar. Hasieran esana geratu den bezala, "Ingreso" eta batxilergoko lehen kurtsoa zena, 28 ikasle zituela, 65/66 ikasturtean 168 bihurtu ziren: Preparatorioan, Ingreson (bitan banatuak) eta Batxilergoko 1, 2 eta 3. kurtsoak. 66/67 ikasturtean eskolak zati bat lehen hezkuntzari eskaini zion. Elizbarrutiko Patronatuaren mende, Eskolaurreko umeen talde bat eta sekzio bateratu bat sortzeko beharrezkoa zen dokumentazio guztia eta eskaera aurkeztu eta onartua izan zen. 1966ko abuztuaren 5ean, Hezkuntza Ministerioaren buletinean argitaratu zen bi sekzio horiek sortzeko baimena. Ikasturte horretan, ikasleak 230 ziren.

14

El Secretario del Ayuntamiento de Arano (Navarra), cuyo hijo nació en la Clínica Martín Santos de Egia, pide bautizarlo en la feligresía de María Reina. Por aquel entonces, este pueblecito era lugar de destino frecuente de las excursiones de Aguiluchos. Este contacto facilitó las negociaciones de compraventa del caserío Almandoz y de un terreno colindante, con capacidad para 40 niños, un lugar idóneo para el esparcimiento de estos en las colonias de verano. Tras varios tanteos, Almadoz-Enea es adquirido el 23 de junio de 1965. Dicha compra, como las cuantiosas obras de adaptación que fueron necesarias, recayeron sobre Obras Sociales, primero, y sobre la Asociación de Padres de familia, al crearse esta.

Nafarroan, Arano herriko udaletxeko idazkariaren semea Egia auzoko Martín Santos klinikan jaio zen. Gurasoek Maria Reina parrokian bataiatu nahi izan zuten. Garai hartan, Nafarroako herri txiki horretara askotan egiten zituzten txangoak "Aguilucho"ek. Harreman horrek erraztu egin zituen Almandoz baserria eta ondoko lur-sail bat erosteko negoziazioak. Bertan 40 bat haur sar zitezkeen eta paraje aproposa zen udalekuak sortu eta ikasleen jolaserako eta aisialdirako. Hainbat saioren ondoren, azkenean, 1965eko ekainaren 23an erosi zen Almandoz-Enea. Erosketa hori eta ondoren egin behar izan ziren egokitze lan ugariak Gizarte Ekintzen gain geratu ziren aurrena eta Guraso Elkartearen gain gero, elkarte hori sortu zenean.

15

En el curso 66/67, las Religiosas Auxiliadoras, popularmente conocidas como “cristetas” (su convento ocupaba la Villa Cristeta en Ategorrieta), colaboran eficientemente con el Colegio, haciéndose cargo de las clases de Religión y formación de los pequeños. Su labor se traslada también a la casa de Arano, donde, además de encargarse de la atención directa de los niños, realizan labores de cocina y de organización en el abastecimiento de los suministros para la alimentación durante las colonias estivales.

Jendeak horrela deitzen diete moja laguntzaile hauei: “Cristetak”, beren komentua Ategorrietako Villa Cristetan dagoelako. Lekaime hauek 66/67 ikasturtean hasi ziren ikastetxearekin lankidetzan modu eraginkor batean. Beren gain hartu zuten erlijio eskolak eta txikienen hezkuntza. Lankidetza hori Aranoko etxean ere bete zuten udalekuetan. Haurren zaintza zuzenaz gain, beren ardurapean geratu zen sukaldea eta elikagaien hornikuntzaren antolaketa guztia.



1966/67. Mojak Eskolan: arreba Isabel, arreba Concepción, arreba Montserrat, arreba Pilar.
1966/67. Las monjas llegan al Colegio: sor Isabel, sor Concepción, sor Montserrat, sor Pilar.

16

En este mismo curso, debuta en la Tamborrada una compañía formada por el Club Xavier, Donosti Gain, C.P. Font y Andreu y el Colegio María Reina. En el año 2010, María Reina Eskola abandera su propia compañía, estrenando un nuevo estandarte.

Ikasturte horretan bertan egin zuen lehen agerraldia Donostiako Haur Danborradan konpainia berri batek. Konpainia hori honako elkarte hauez osatua zegoen: Xavier Kluba, Donosti Gain, C.P. Font y Andreu eta Maria Reina Eskola. 2010ean, Maria Reina Eskolak bere konpainia propioa du, estandarte berria eta guzti.




Danborrada. Bandera zaharra.
Tamborrada. Antigua bandera.




Danborrada. Bandera berria.
Tamborrada. Nueva bandera.

17

En el curso 67/68 se crean otras dos unidades dependientes del Patronato Diocesano: una más de Párvulos y otra de Primaria. Por otra parte, el Colegio Parroquial acoge a unos cien alumnos provenientes de una academia particular del barrio que cesa en su actividad. Se ofrece así una solución al serio problema que para las familias suponía la reubicación escolar de estos niños. Se habilita parte del salón de actos parroquial a tal efecto. El colegio cuenta en este momento con 340 alumnos.

Beste bi ikasgela sortu ziren 67/68 ikasturtean, biak ere Elizbarrutiko Patronatuaren mendekoak: bata eskolaurreko haurrez osatua eta bestea lehen hezkuntzakoa. Beste alde batetik, parrokiako ikastetxeak beste ehun bat ikasle hartu zituen. Ikasle horiek itxi behar izan zuen auzoko akademia partikular batetik zetozen. Era horretan konpondu zen ume horien eskolatzea, arazo larria baitzen familia haientzat. Ikasle horiek hartzeko, parrokiaren bilera aretoaren zati bat egokitu behar izan zen. Eskolak 340 ikasle zituen une horretan.


2005/06. Eskola kirola, txikienak.
2005/06. Deporte escolar, benjamines.


2006/07. Ávilan.
2006/07. En Ávila.


2006/07 ikasturtearen azken eguneko festa.
Fiesta de fin de curso de 2006/07.

18

En este mismo curso se crea una Escuela de Formación Profesional en los bajos del Colegio. Tras cursar el Bachillerato Elemental, muchos jóvenes carecen de una oferta educativa en el barrio, adecuada a sus intereses. Esta escuela nace como respuesta a dicha necesidad, siendo la iniciativa acogida con interés por las empresas y talleres de la zona (Iriarte y Egaña y la Casa Thor), que contribuyen a su puesta en marcha con la donación de máquinas, torno, sierras e incluso una dependencia para la clase de taller de la escuela. El 3 de febrero de 1968, bajo la supervisión del profesor D. Jesús Mario Barbarín, queda inaugurada la Escuela de Formación Profesional.

Ikasturte berean, Lanbide Heziketa Eskola sortu zen ikastetxearen sotoetan. Oinarrizko batxilergoa bukatu ondoren, gazte asko geratzen zen auzoan ikastera nora jo jakin gabe. Behar horri erantzunez sortu zen eskola hori, eta inguruko enpresa eta tailer askok txalotu egin zuten ekimena (Iriarte eta Egaña, eta Thor etxea, adibidez); ez txalotu bakarrik, emaitzan utzi baitzituzten hainbat lanabes: makinak, tornua, zerrak eta baita barne bat ere tailer eskolak emateko. Lanbide Heziketa Eskola 1968ko otsailaren 3an inauguratu zen, eta arduradun nagusi Jesus Mario Barbarín irakaslea jarri zen.

19

Desde hacía ya tiempo se venía trabajando en la formación de una junta gestora que representase al barrio y a sus obras sociales. La parroquia y la sociedad Donosti-Gain eran en ese momento las entidades públicas más representativas del barrio.

Aspalditik ari ziren auzoan batzorde kudeatzaile bat eratu beharraz auzoa eta bere gizarte ekintzak kudeatzeko. Une hartan parrokia eta Donosti Gain elkartea ziren auzoko erakunde publiko garrantzitsuenak.

20

El 31 de enero de 1968, queda constituida la Asociación Católica de Padres de Familia de María Reina, con el visto bueno del Sr. Obispo de San Sebastián y la aprobación y constitución como persona jurídica por parte del Gobernador Civil de Gipuzkoa. La necesidad de creación de dicha asociación fue la de gestionar las obras sociales dependientes hasta la fecha de la parroquia. La asociación asume esta responsabilidad, apareciendo pronto los primeros problemas en el área educativa, a los que tendrá que hacer frente con la mayor celeridad.

1968ko urtarrilaren 31n eratu zen Maria Reina Eskolako Guraso Elkarte Katolikoa. Hori egiteko oniritzia eman zuen Donostiako Gotzainak; Gipuzkoako Gobernadore Zibilak onartu egin zuen eta pertsona juridiko izaera eman zion. Ordura arte gizarte ekintzen kudeaketa parrokiaren esku zegoen, eta, helburua hori zenez, handik hara, Guraso Elkarte sortu berriaren gain joan zen. Guraso Elkarteak erantzukizuna bere gain hartu zuen, baina berehala sortu ziren hezkuntza arloko lehen arazoak, eta aurre egin behar izan zitzaien albait bizkorren.

21

Se documenta la primera actuación de esta Junta el 3 de febrero de 1968, en una carta al responsable de una conferencia-coloquio en el Cine Dunixi, a propósito de los problemas concernientes a Atotxa-Egia. La misiva aparece firmada por: Sebastián Tenés Iturriza Presidente), Bruno Carmona Torralba (vocal) y Nazario M. González Tejerina (vocal).

Batzorde honen lehen ekintza 1968ko otsailaren 3an dago dokumentatuta. Gutun bat da “Dunixi” zinema aretoan egin zen hitzaldi-hizketaldi baten arduradunari zuzendua, eta Atotxa-Egia auzoko arazoak gai hartuta idatzia. Gutuna honako pertsona hauek izenpetua ageri da: Sebastián Tenés Iturriza, presidentea; Bruno Carmona Torralba eta Nazario M. González Tejerina batzordekideak.

22

El 30 de mayo 1968 la Asociación Católica de Padres de Familia de María Reina presenta la solicitud a la creación de nuevos puestos escolares para la construcción de la Sección Filial. Con fecha 15 de julio de 1969, el ministro de Educación y Ciencia firma la concesión para la construcción de 450 nuevos puestos escolares en la Sección Filial de la Asociación Católica de Padres de Familia de la Parroquia de María Reina. La subvención se cifra en 4.320.000 ptas., con un anticipo de 480.000 ptas. De la subvención, 4.200.000 ptas. son a fondo perdido y 600.000 ptas. en calidad de préstamo. Se recibe el comunicado de dicha concesión y de la aprobación de los planos, así como el pliego de condiciones y la documentación a presentar en el Banco de Crédito a la Construcción en el plazo máximo de tres meses. El problema se plantea cuando el citado banco exige que el solar sea propiedad de la entidad que solicita la creación, ya que este está a nombre de la Iglesia, que es la propietaria del mismo.

1968ko maiatzaren 30ean Maria Reina Eskolako Guraso Elkarte Katolikoak eskaera bat aurkeztu zuen eskola postu berriak sortzeko eskumendeko adar bat eraiki nahiz. 1969ko uztailaren 15ean Zientzia eta Hezkuntzako Ministerioak 450 eskola postu berri sortzeko kontzesioa izenpetu zuen. Postu berri horiek Maria Reina Parrokiako Guraso Elkarte Katolikoaren eskumendeko adarrean sortuko ziren. Dirulaguntza 4.320.000 pezetakoa zen, eta 480.000 pezetako aurrerapena eman zen. Dirulaguntza horretan, 4.200.000 pezeta ez itzultzekoak dira eta 600.000 mailegutzat hartuak. Ikastetxean jaso ziren kontzesioaren jakinaraztea eta planoen onarpena, eta horiekin batera baldintza agiria eta Eraikuntzarako Kreditu Bankuan, gehienez hiru hileko epean, aurkeztu beharreko dokumentazioa. Arazo bat dago, ordea. Aipatutako banku horrek eskatzen du orubeak izan behar duela eskaera egiten duen erakundearen jabetzakoa. Eta orubearen jabetza Elizarena da.


2006/07 ikasturtearen azken eguneko festa.
Fiesta de fin de curso de 2006/07.


2006/07. Zuaza aterpetxean.
2006/07. En el albergue de Zuaza.


2006/07. Haur Hezkuntza, taloa egiten.
2006/07. Educación Infantil, haciendo talos.



1970. Arano. A. Enrique Vivó, fundatzailea eta lehen zuzendaria, eta Juan Rodríguez, lehen Batzordeko kidea.
1970. Arano. El P. Enrique Vivó, fundador y primer director, y Juan Rodríguez, miembro de la primera Junta.


2006/07. Donibanen.
2006/07. En San Juan.

23

Con fecha 26 de septiembre de 1969, el obispo de San Sebastián, en carta dirigida a la Santa Sede, expone la cuestión. A vuelta de correo, el 6 de octubre, se recibe de Roma el rescripto para la cesión del derecho dado a la Asociación para edificar sobre solar a nombre de la Iglesia, rescripto que es ejecutado por el Sr. Vicario General D. José Elgarresta el 15 de octubre. En consecuencia, la Iglesia seguirá siendo la propietaria del suelo, mientras que del edificio de enseñanza será titular la Asociación Católica de Padres de Familia de la Parroquia de María Reina, siempre y cuando se respete el fin de educación católica que persigue.

1969ko irailaren 26an Donostiako Gotzainak gutun bat idatzi zion arazoa azalduz Vatikanori. Handik gutxira, urriaren 6an, Erromaren erantzuna jaso zen Aita Santuaren erabaki-agiria zekarrela. Bertan esaten zen Guraso Elkarteari ematen zitzaiola eskubidea Elizaren izenean zegoen orubean eraikitzeko. Erabaki-agiri hori Donostiako Bikario Nagusi Jose Elgarrestak jarri zuen indarrean urriaren 15ean. Hartara, Elizak jarraituko zuen orubearen jabe izaten, baina gainean eraikiko zen ikastetxearen jabea Maria Reina Parrokiako Guraso Elkarte Katolikoa izango da, baldin eta atxikita dagoen hezkuntza katolikoaren ildoan atxikita jarraitzen badu.

24

El 19 enero 1971 se firma en Madrid con el Banco de Crédito a la Construcción el acuerdo para la subvención concedida por el Ministerio de Educación y Ciencia.

1971ko urtarrilaren 19an izenpetu zen Zientzia eta Hezkuntzako Ministerioak emandako dirulaguntzarako ituna Eraikuntzarako Kreditu Bankuarekin, Madrilen.

25

En junio 1971 da comienzo la construcción del Colegio. El presupuesto que es aprobado por la Junta asciende a 9.800.000 ptas., sobrepasando en cinco millones la subvención del Ministerio.

1971ko ekainean hasi zen eskola eraikitzen. Batzordeak onartzen duen aurrekontua 9.800.000 pezetakoa da. Ministerioak emandako dirulaguntza baino bost milioi garestiago.

A tenor de las directrices de la O. M. de 3 de junio de 1972, fue enviada en su día por la Delegación Diocesana la solicitud para la transformación de la Escuela Graduada de Enseñanza Primaria María Reina (que hasta el momento había pertenecido al Patronato Diocesano de Enseñanza), en centro no estatal completo de Educación General Básica y Preescolar, en consecuencia y tras su aprobación por el órgano competente, María Reina pasa a ser un centro privado, dejando de estar sujeto a las normas que regían en los patronatos.

26 1972ko ekainaren 3ko ministerio aginduan ematen ziren arauetan oinarri hartuta, elizbarrutiaren ordezkaritzak bidalia zuen eskaria “Maria Reina” Lehen Hezkuntzako Eskola Graduatua (ordura arte Elizbarrutiaren Hezkuntza Patronatuarena izana baitzen) Eskolaurre eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko zentro ez Estatuarena eta osoa bihur zedin. Ondorioz, eta zegokion erakundeak onartu eta gero, Maria Reina zentro pribatu bihurtu zen, eta, handik hara, ez zen Patronatuetako arauen bidez gobernatuko.



2006/07. Arrokandieta aterpetxean.
2006/07. En el albergue de Arrokandieta.

Paulatinamente y no sin esfuerzo, fueron transformándose o bien creándose las diferentes unidades de EGB necesarias, hasta completar en el curso 1974/1975 toda esta etapa de enseñanza obligatoria.

27 Pixkana-pixkana, eta ahalegin handien ondorioz, OHOko kurtso guztiak osatzen joan ziren, harik eta, 74/75 ikasturtean, nahitaezko hezkuntza epe hori guztia osatu zen arte.



1974/75. Eskolaurrekoa.
1974/75. Preescolar.

El 8 de abril de 1973, concluidas las obras de edificación y montado el mobiliario del Colegio por valor de 425.238 ptas., donativo de la Fundación Excmo. Sr. D. José Maria Aristrain, se traslada el alumnado al nuevo edificio, para cursar en él el tercer trimestre escolar.

28 1973ko apirilaren 8an, eraikuntza lanak bukatuta, eta ikastetxeko altzari jende guztia jarrita, ikasleak eraikin berrian sartu eta hirugarren hiruhilabeteko osoa bertan ikasi zuten. Altzarietan 425.238 pezeta gastatu zen, eta “José María Aristrain Jaun Txit Gorena” fundazioaren emaitza izan zen.



1972/73. Eskola berria.
1972/73. Nuevo colegio.




2007ko Santu Guztien Egunean, aparkalekua.
Día de Todos los Santos de 2007, parking.

## 5
## SEGUNDA ÉPOCA
## DESDE EL 8 DE ABRIL DE 1973
## HASTA EL CURSO 1994/95
## (NUEVO EDIFICIO)

## 5
## BIGARREN AROA
## 1973KO APIRILAREN 8TIK
## 1973KO 1994/95 IKASTURTEA ARTE
## (ERAIKIN BERRIA)

29

En agosto de 1973 se firma un acuerdo entre la Asociación de Padres de Familia y la Congregación de Religiosos Marianistas, por el que la dirección técnica del Colegio corresponderá a un religioso de dicha congregación, con la ayuda de varios profesores también marianistas. La titularidad, gobierno y administración del Colegio seguirá corriendo a cargo de la Asociación de Padres de Familia. El P. Germán Cremades será elegido director, y ejercerá el cargo aquel curso y el siguiente, siendo relevado posteriormente por el también marianista P. Ángel Parra, que se hará cargo de la dirección los cursos 1975/1976 y 1976/1977.

1973ko abuztuan, Guraso Elkarteak eta Marianisten kongregazioak hitzarmen bat izenpetu zuten. Bertan adostu zen ikastetxearen zuzendaritza teknikoa kongregazio horretako erlijioso batek eramango zuela, eta beste irakasle marianista batzuk ere izango zituela lagun. Ikastetxearen jabetza, gobernua eta administrazioa, hala ere, Guraso Elkartearena izaten jarraituko zuen. Aita Germán Cremades izan zen zuzendari hautatua eta karguan egon zen ikasturte hura eta hurrengoa. Beste marianista batek, Aita Ángel Parrak, ordezkatu zuen hurrengo ikasturtean eta zuzendari izan zen 1975/76 eta 1976/77 ikasturteetan.

30

En septiembre de 1973, el Ministerio de Educación y Ciencia decreta que el Colegio funcionará, en cuanto a las nóminas de los maestros, como colegio subvencionado por el Estado.

1973ko irailean, Zientzia eta Hezkuntza Ministerioak agindu zuen, maisuen lansariei zegokionez, Maria Reina Eskolak funtzionatuko zuela Estatuak lagundutako ikastetxeen moduan.

31

En el Consejo de Ministros celebrado en agosto de 1974 en La Coruña, el Colegio de María Reina es declarado Obra de Interés Social.

Coruñan, 1974ko abuztuan, egin zen Ministro Kontseiluak Maria Reina Eskola Interes Sozialeko Obratzat aldarrikatu zuen.

32

Durante el curso 1974/1975, dos nuevas experiencias educativas vienen a ampliar el abanico educativo de María Reina al crearse las nuevas Aulas de Cultura y la Escuela Nocturna de Adultos.

1974/75 ikasturtean bi esperientzia berri saiatu ziren Maria Reina Eskolan eta lehendik zegoen aukera aberastera etorri ziren, ikasturte horretan zabaldu baitziren Kultura Ikasgelak eta Helduen Gaueskola.

33

A final del curso 1976/1977, causa baja don Enrique Vivó de Undabarrena. Director desde su fundación hasta el curso 1970/1971, fue la persona clave, desde la década de los 60 hasta bien mediados los 70, en la puesta en marcha y desarrollo del Colegio. Continúa su labor docente en Madrid como profesor de la Universidad Nacional de Educación a Distancia en la Facultad de Derecho, puesto que venía ocupando desde hacía dos años en la Universidad del País Vasco en San Sebastián.

1976/77 ikasturtearen amaieran, Enrique Vivó de Undabarrena jaunak Eskola utzi egin zuen. Sortu zenetik eta 1970/71 ikasturtea arte ikastetxeko zuzendari izana zen eta ia bi hamarraldiz bera izan zen giltzarri gauza gehienetan, eskolaren abiatze eta garapenean. Irakasten jarraitu zuen Madrilen, Zuzenbide Fakultateko Unibertsitate Irekian; Euskal Herriko Unibertsitatean, Donostian, aritua zen gainera bi urtez lan hori egiten.

34

D. Ángel Arce dirige el Colegio durante el curso 1977/1978. Este será el último curso con presencia de marianistas en el centro. El número de matriculas nuevas va en declive, cuestión que acrecienta la preocupación por el futuro del Colegio. Gran parte de su profesorado da por terminada su relación laboral con este, por lo que será necesaria la contratación de seis nuevos docentes. Esta renovación conlleva un cambio notable en la estructura del Claustro, ya que las nuevas incorporaciones suponen una renovación de más de la mitad de sus componentes. Un claustro joven –salvo un único caso, ninguno de sus miembros supera los 30 años–, dirigido en el curso 1978/1979 por D. Adolfo Rodríguez Bornaechea, apostará con dinamismo por experiencias educativas innovadoras que ayuden al reflote del Colegio.

Angel Arce jauna izan zen Eskolako zuzendari 1977/78 ikasturtean. Hori izan zen marianisten partehartzearen azken ikasturtea. Matrikula berrien kopurua beheraka zetorren, eta ikastetxearen etorkizunari buruzko kezka piztu zen. Irakasle askok ikastetxea utzi zuen orduan eta sei bat irakasle berri kontratatu behar izan ziren. Berritze honek Klaustroaren egituran ere izan zuen eragina, erdia baino gehiago berria baitzen. Irakasleen biltzar gaztea eratu zen. Kasu bakar batean izan ezik inor ez zen 30 urtera iristen. 1978/79 ikasturtean Adolfo Rodríguez Bornaetxea jauna jarri zen zuzendari, eta dinamismoz egin zuen apustu hezkuntza esperientzia berritzaileen alde, ikastetxea berrabiarazteko xedez.



1972/73. Eskola berria atzetik, hesia jarri aurretik.
1972/73. Nuevo colegio por detrás, aún sin colocar la valla.



1974/75. OHOko 5. maila.
1974/75. 5º de EGB.



2012/13. Euskararen Eguna.
2012/13. Día del Euskera.



2012/13. HH5eko bost neskatxoak.
2012/13. Las cinco niñas de EI5.

35

Entre estas apuestas educativas, cabe señalar la iniciativa que el Colegio pone en marcha en cuanto a la enseñanza del euskera. En este curso se comenzaron a impartir clases en este idioma, cuando su obligatoriedad llegaría con posterioridad.

Hezkuntza apustu horien artean, bat bada bereziki ausarta, eta da euskararen irakaskuntza martxan jartzea. Ikasturte horretan hasi ziren euskaraz eskolak ematen, horretan nahitaezkotasunik artean ez bazegoen ere.

36

En el curso 1978/1979 es nombrado director D. Juan María Rodríguez Carpintero, antiguo alumno del Colegio y profesor de este desde el curso anterior. Muy ligado al centro, ejerció sus funciones de director durante diez cursos escolares consecutivos, siendo el director que durante más tiempo ha ocupado el cargo. Hoy día continúa con su actividad docente en María Reina.

1978/79 ikasturtean Juan Maria Rodríguez Carpintero jauna izendatu zuten zuzendari. Eskolako ikasle izandakoa zen eta irakasle sartua aurreko urtean. Eskolari oso lotua egon zen eta hamar urtez egin zituen zuzendari lanak. Kargu hori denbora luzeena bete duen pertsona da Rodríguez Carpintero. Gaur egun ere, irakasle jarraitzen du Maria Reina Eskolan.

37

Ya en el curso 1977/1978 se había solicitado a la Delegación de Educación el permiso pertinente para la admisión de niñas en el Colegio, transformándose así en un centro mixto, ya que hasta entonces había sido exclusivamente masculino. El 3 de marzo de 1979 se recibe la autorización con la condición de "contar con servicios separados por sexos".

En el curso 1979/1980, cinco niñas –Conchi Bollo, Inés Martínez de San Vicente, María Inmaculada García, Elena Landa y María Coro Azofra– serán las primeras alumnas matriculadas en el Colegio.

